

ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA (ZLPE)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Adingabea -18 desgaitasunarekin > Diru-laguntzak

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren (ZLPE) helburua da pertsona erabiltzailearen eskubidearen antzeko ezaugarriak dituen zerbitzu baterako sarbidea erraztea, sarbidea aldi baterako bermatu ezin denean, GZES gizarte-zerbitzuen sisteman integratutako zerbitzuen esparruan ([3.4.1 fitxa](#)).

- Izaera periodikoa du.
- Aldi baterakoa eta salbuespenezkoa da, eta erabiltzailearen eskubidea onartzen denetik sistema publikoaren barruan dagokion zerbitzura benetan sartu arte behar den denborarako baino ez da ematen, Gizarte Zerbitzuen Legearen 16.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- Beraz, ez da ematen pertsona GZESn integratutako zerbitzu batera sartzen denean.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Prestazioa lotzen zaion zerbitzu zehatzaren **irizpideak betetzen dituzten pertsonak.**

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- Prestazioa lotzen zaion zerbitzua eskuratzeko betekizunak betetzea.
- Prestazioa eskatzen den administrazioari dagokion lurraldeko udalerrri batean erroldatuta egotea (gizarte-larrialdiko prestazioa izan ezik, 1.9.1.).
- Baliabide baimendu batean plaza edo zerbitzu pribatua dagoela egiaztatzea.

Zenbatekoa da?

Gehieneko zenbatekoa administrazio eskudunek finkatzen dute urtero (udal-administrazioek, foru-administrazioek edo Eusko Jaurlaritzak), zerbitzu-motaren arabera.

- Pertsona bakoitzak jasotzen duen zenbatekoa aldatu egiten da, hainbat faktore kontuan hartuta:
- Zerbitzuaren kostua
- Eskatzen duen pertsonaren gaitasun ekonomikoa.
- Beste gizarte-zerbitzu batzuk erabiltzen diren ala ez (telelaguntza izan ezik, bateragarria baita)
- Antzeko beste prestazio edo osagarri batzuk kobratzea

Bateragarria al da beste laguntza batzuekin?

ZLPEa mendekotasun-egoeran dagoen pertsona bati arreta ematera bideratzen denean, SAADen kokatzen da. Beste prestazio ekonomiko edo zerbitzu batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna zerbitzuaren edo zerbitzuen bateragarritasunen eta bateraezintasunen araubidean ezarritakoaren arabera izango da.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

ZLPEren erantzukizuna udalarena, foru-aldundiarena edo Eusko Jaurlaritzarena izan daiteke, lotzen zaion zerbitzuaren eskumena norena den arabera.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta laguntza hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- [Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa Araban](#)
- [Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa Bizkaian](#)
- [Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa Gipuzkoan](#)